



AHAL DU LASARTE-ORIA PUEDE UDAL TALDEA
GRUPO MUNICIPAL AHAL DU LASARTE-ORIA PUEDE

LASARTE-ORIAKO UDALBATZARI

HERRIAN BARATZE EKOLOGIKOAK SORTZEAREN ALDEKO MOZIOA

Hiri eta herriguneeen barruan eta inguruetan, baratze txikiak sortzeko proiektuak mundu guztian zabaldu dira; lurzati txikiak izaten dira, eta leku degradatuak edo alferrik galdutakoak errekuperatu eta biziberritu egiten dira horien bidez. Zorionez, emaitza bikainak eman dituzte ekimen horiek. Herri barruko baratzeek nekazaritza ekologikoa sustatzen dute, eta aukera bikaina ematen dute tokian tokiko barazkiak kontsumitzeko; aldi berean, helburu sozialak ere betetzen dituzte, eta laguntza handikoak dira krisi ekonomikoa gehien sufritzen ari diren pertsonentzat.

Sevillan, Bartzelonan eta beste hiri handi batzuetan, esperientzia aitzindari eta bide-erakusle horiek laguntza handia jasotzen ari dira instituzioen aldetik. Euskal Herrian ere baditugu halakoak ere: Gasteizen, Bilbon, Portugaleten, Santurtzin... Gipuzkoan, berriz, estatuko herri-baratzeen sarerik handiena dugu: "Baratze Parkea" baratze-sarea 16 udalerrik osatzen dute (Alegiak, Anoetak, Azkoitiak, Azpeitiak, Berrobik, Donostiak, Elgetak, Errenterriak, Hernanik, Irunek, Lezok, Tolosak, Urnietak, Usurbilek, Villabonak eta Zegamak), eta guztira 50.000 m² lantzen dira etxeko kontsumora zuzenduta dauden baratze ekologiko horietan.

Uste dugu Lasarte-Oriak badituela behar diren kondizioak, bai sozialak, bai ingurumenari dagozkionak, era horretako esperientziak sustatzeko; herri-baratze txikiak oso mesedegarri izango lirake herriar guztientzat, alderdi askotatik begiratura: nekazaritza ekologikoa sustatuko lukete; talde eta kolektibo desberdinen arteko harremanak bultzatuko lituzkete; aisialdi aktibo eta jasangarria indartuko lukete, eta, aldi berean, garrantzi handikoak dira kulturaren adierazpide anitzen aldetik ere, euskaldunok eta euskara bera nekazaritzarekin lotura handia izan dugunez betidanik.

Baratzea eta tokiko produktuak gure ingurumenaren, hondarearen eta kulturaren parte funtsezkoak dira, eta administrazioen obligazio eta betebeharra da horiek babestea eta balioestea. Gure herriak baditu udal-lurzatiak helburu horretarako aise egokitzeko modukoak. Horretarako, Udalak lankidetzan jarduteko moduak bilatu beharko ditu nekazarien erakundeekin eta erakunde sozialekin, ekimen hori sustatzeko eta herri-lur horiek herritarrei lagako zaiela zabalatzeko.

Udalarenak diren lurzati horiek, herritarren esku jartzeko –esandako helburuekin betiere: aisialdiko baratzeak izatea eta etxeko kontsumorako izatea soil-soilik–, Ahal Du Lasarte-Oria Puede udal-taldeak honako akordio eta erabaki hauek hartzea proposatzen dio Udaltzari:

1. Udal-gobernuari eskatzea lehenbailehen egin dezala txosten tekniko bat, gure udalerriko herri-lurzatiak zein diren identifikatzeko, garbi zehaztuz horien kokapena eta hedadura –betiere kontuan hartuz herri-baratze ekologikoak egiteko direla, eta horien jarduerak ludikoa eta soziala izan behar duela eta ingurumena zaintzera bideratuta egon behar duela–.
2. Udal-gobernuari eskatzea lehenbailehen egin dezala udal-ordenantza bat, non herri-lurzati horiek herritarrei lagatzeko eta erabiltzeko behar diren arauak erregulatuko diren.
3. "Baratze Parkea", Gipuzkoako herri-baratze ekologikoen sarera udal gisa sartzeko aukera aintzat hartzea eta aztertzea.
4. Kanpain berezi baten bidez ekimen hau argitara ematea eta zabaltea, behar diren baliabide publikoak eta prentsa-komunikatuak erabiliz horretarako.